




AuzoEkin

diagnosiaren emaitzen
eta ondorioen aurkezpena



Lan-prozesua


1) Aurreazterketa analitikoa

2) Input kuantitaboak

- Informazio estatistikoa
 - Errolda / Eustat / Lanbide
- Inkestatze prozesua
 - 3 eremuak: 2.543 biz / 562 ink

3) Input kualitatiboak

- Talde eragileen sorrera saioak
- Elkarrizketa sakonak
- Focus taldeak
- Saio irekiak
- Deribak (ibilaldi gidatuak)



Bidebieta, Izaskun eta Iparragirre

Ondorio nagusiak

Diagnosiak eremuaren errealitate sozial eta urbanoaren diagnosi sakona egin du, eta hainbat joera eta erronka nagusi identifikatu ditu. Biztanleria hazkunde eta **gaztetzee fasean** dago, azken urteetan **etorri berrien pisua nabarmen** handituz. Horrek eragin zuzena du bizikidetzan, etxebizitzaren eskariaren igoeran eta espazio publikoaren erabileran. Eremuko **egoera ekonomikoa**, oro har, **apala** da; lan-merkatuan ez da arazo larririk hauteman, baina bizilagunen gehiengoa ez-aktiboa da eta **etxebizitzaren kostuak presio handia** eragiten du, eta ondorioz, **hilabete bukaerara iristeko zailtasunak** ageri dira.

Bigarrenik, espazio kualitatiboetan jasotako ekarpenek erakutsi dute auzoak **bi lehentasun** nagusi dituela: **espazio publikoaren bizi-kalitatea eta komunitatearen aktibazioa**. **Zabalarreta** parkea auzoaren bihotz eta topagune potentzial gisa ikusten da, baina gaur egun egoera ahulean dago, eta bizilagunek haren birgaitzea lehen urrats gisa proposatu dute. **Irisgarritasun** arazoek —espaloien egoera, konektibitate eskasa, eta oinezkoentzako segurtasun falta— kezka iturri dira, eta konponbide zehatzak proposatu dira: erreduktoreak, “rampa” mekanikoak eta mantenu plan erregularrak. Halaber, merkataritzaren gabezia eta lokal publiko hutsen aktibazioa **auzoaren dinamizazio**rako gako modura azpimarratu dira.

Azkenik, AuzoEkin prozesuak erakutsi du bizilagunek **auzoarekiko atxikimendu sendoa** dutela, nahiz eta auzogintza oraindik mugatua izan. Hori aprobetxatzea funtsezkoa izango da etorkizuneko garapen estrategikoan: **komunitatearen kohesioa indartu, kulturartekotasuna sustatu eta gobernantza partekatuaren** bidez bizilagunak erabaki-hartzean txertatzeko.




Biztanleen ezaugarritzea

Caracterización de la población

1. % 15eko biztanleriaren gorakada azken hamarkadan
2. 45 urteko batezbesteko adina
3. Adin-taldekako orekarako joera duen piramidea
4. Biztanleen %8,5ak kanpoko jatorria (Latinoamerika eta Afrika nagusituz)
5. % 36,2ko emantzipazio tasa


Biztanleriaren bilakaera 2015-2025




Ekonomia eta enplegua

Economía y empleo

Biztanleria jarduerarekiko harremanaren arabera 2025



Biztanleria hilabete bukaerara iristeko gaitasunaren arabera 2025




1. Langabezia tasa murrizta (% 5 baino gutxiago)
2. Herena iraupen luzeko langabetuak
3. Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (% 68)
4. Industriaren pisu erlatibo esanguratsua izanik (% 25)
5. Gehiengoak udalerrian edota eskualdean egiten du lan
6. Kontziliazio neurrien baliatze hedatua (landunen % 56)
7. Laurdenak hilabete bukaerara iristeko zailtasunak ditu
8. Diru-sarrera baxuek ezaugarritzen dute eremua
9. Pertsonen laurdenak prestazioren bat jasotzen du


Etxebizitza Vivienda

1. Biztanleriaren laurdenak 5 urte baino gutxiago bertan
2. Diru-sarreraren zati nabarmena etxebizitza gastuetarako
3. Biztanleen erdia jabetzan duen etxebizitza batean bizi da
4. Etxebizitzaren egoera orokorra ona da
5. 2,5 pertsona etxebizitza bakoitzeko


Biztanleria auzoan bizitzen daraman denboraren arabera 2025



Biztanleria etxebizitzara bideratutako sarrera-zamen arabera 2025



Biztanleria etxebizitzarekiko jabetza erregimenaren arabera 2025




Ingurumena, hiri-espazio eta garraioa

Medio ambiente, espacio urbano y transporte

Biztanleriaren balorazioa, inguruneari, hiri-espazioari eta garraioari dagokienez 2025

1. Ingurune eta berdeguneekiko balorazio baikorra (% 65a konforme)
2. Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko iritzi kontrajarria (erdia eta erdia)
3. Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi oso ezkorra (% 65a ez dago gustura)
4. Oinezko desplazamenduen garrantzia nabarmena (lanerako eta ikasteko salbu)




Bizitza eta komunitate-bizikidetzatza

Vida y convivencia comunitaria

1. Bizitzako alderdien (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) asebetetze altua
2. Genero arrakala zaintza lanei dagokionez
3. Etxeko lanak zaintza lanik hedatuena, adingabekoen zaintzaren aurretik
4. Parte-hartze eskasa eremuko ekimen kolektiboetan
5. Auzo izaera nahiko errotua, auzoarekiko atxikimendu altua erakutsiz
6. Eremuko giro-sozialaren balorazio erabat baikorra (3/4 giroa ona edo oso ona)
7. Eremuarekiko gogobetetze maila orokor positiboa

Biztanleria eremuarekiko atxikimendu mailaren arabera 2025



Biztanleria eremuarekiko gogobetetasunaren arabera 2025



Gobernantza eta zerbitzuak

Gobernanza y servicios

Biztanleriaren balorazioa gobernantza elementuei buruz 2025

- 1. Oinarrizko zerbitzu, produktu, eta ekipamenduekiko balorazio ezkorra
- 2. Adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen diren aukerekiko asebetetzea
- 3. Adin-nagusikoentzako aukerekiko iritzi ezkorra, salbuespen gisa
- 4. Udal teknikarien eta ordezkari politikoen lanaren balorazio baikorra
- 5. Komunikazioaren eta iradokizun eta jakinarazpenekiko erantzunen balorazio ezkorra

	1	2	3	4	
	(Batere gustura ez)	(Oso gustura ez)	(Nahiko gustura)	(Guztiz gustura)	Batezbestekoa
Orokorrean, auzoari eskainitako arreta	9	31,3	58,4	1,4	2,52
Komunikazioa bizilagunekin	17,2	40,6	38	4,2	2,29
Erantzuna kexei, iradokizunei, jakinarazpenei	11,7	37,3	48,5	2,4	2,42
Izapideak egiteko erraztasuna	7,6	35,4	52,9	4	2,53
Langileek emandako tratua	5,1	17,2	72	5,7	2,78
Politikako karguak dituzten pertsonen egindako lana	10,6	25,6	61,5	2,3	2,56



Lehenespen eta premia nagusiak

Priorización y necesidades principales


Beharrak	Arloa	Lehentasun maila
Komertzioa hurbiltzeko edota bizilagunak komertziora gerturatzeko erraztasunak ezartzea. Irisgarritasuna handitu edota zerbitzu publiko gisa jarri lehen produktuak erosteko.	Ekonomia eta kontsumoa	Oso altua
Zabalarreta parkea egokitu eta ekipatzea eskatzen da, "auzoaren birika" eta elementu egituratzailea denez gero.	Ingurumena	Altua
Aparkalekuetan bertakoentzako marrak falta dira, lehentasun eza azpimarratzen da	Mugikortasuna	Altua
Kotxeak: Irisgarritasun arazoak daude kotxeek herriko zentruarekin duten konexioagatik.	Mugikortasuna	Ertaina
Oinezkoetan: Espaloiak desnibela eta okupazioa, zebra-bideen arazoak, nabarmen hobetu behar dira. Deriban argi ikusi zen.	Mugikortasuna	Ertaina
Lokal publikoen erabilera eza. Otsabi Auzo elkartearen berreskuratzea eskatzen da, beste lokal batzuen artean.	Ekipamenduak eta zerbitzuak	Ertaina
Negurako estalpe edo leku itxi baten beharra: haurren hamaiketakoak edo merendolak egin, gazteleku bezala...multifuntzioa izango duen espazio bat	Ekipamenduak eta zerbitzuak	Ertaina

Lehenespen eta premia nagusiak

Priorización y necesidades principales

Beharrak	Arloa	Lehentasun maila
Auzoko jai bateratuak berreskuratu nahi dira, auzo ezberdinen artean lan-dinamikak sortu eta proiektu hamankomun bat eratzeko beharra.	Kultura	Baxua
Parte hartze herritarra sustatu nahi da, ekintza berriak antolatu eta auzotarren artean sartzeko.	Bizikidetza	Baxua
Kulturartekotasuna eta integrazioa sustatzeko ekintzak antolatzea, auzoetan errotuta ez dauden familiak gerturatzeko.	Bizikidetza	Oso baxua
Komun publikoak irekita eta garbiketa zerbitzuaren beharra (Zabalarreta parkea, eredu)	Bizikidetza	Oso baxua
Eremuaren sorrera eta historiari garrantzia emateko beharra. Auzo ezberdinen historia kontatzeko errefortzua egin.	Kultura	Oso baxua





Landa eremua

Ondorio nagusiak

Tolosako landa eremuan **biztanleria zahartzen** ari da, eta belaunaldi berriek **emantzipatzeko** dituzten **zailtasunek** eragin zuzena dute eremuaren etorkizunean. Gainera, etxebizitza eskaintza mugatua eta **kanpotik etorritako jendea erakartzeko gaitasun eskasa** faktore giltzarriak dira biztanleriaren beherakadan. Bestalde, lan-merkatuaren egoera orokorrean egonkorra da eta errenta mailak erlatiboki lasaiak dira, batez ere etxebizitzaren jabetza orokortuak gastu presioa murrizten duelako.

Ekintza kualitatiboek argi utzi dute **azpiegitura eta zerbitzuen gabezia** dela auzoen kezka partekatuenen: ura, saneamendua, argiteria eta bideen egoera dira lehentasun nagusiak. Arazo horiek ez dira zerbitzu faltatzat soilik ikusten, **Udalarekiko interakzio eta jarraipen eskasaren** sintoma gisa baizik. Horregatik, bizilagunek **harreman iraunkorrak** eta egituratuak proposatu dituzte, auzoen jarraipen teknikoa eta **erabakietan parte hartzea bermatzeko**. Ondarearen eta historiaren balioa ere azpimarratu da, paisaia, eraikin historikoak eta herribideak komunitatearen identitatearen ardatz gisa ulertuz.


Auzogintza eta **komunitatearen aktibazioa funtsezko** zutabe gisa agertu dira, nahiz eta elkarteek belaunaldi erreleboaren eta baliabide faltaren erronkak pairatzen dituzten. Hala ere, herritarren prestutasun eta **inplikazio maila altuak** erakusten du landa auzoek bizitza sozial eta kulturala berpizteko potentzial handia dutela. Horren oinarrian, belaunaldi berrien parte-hartzea sustatzea eta Udalarekiko **ko-gobernantza sendotzea** ageri dira etorkizuneko **lehentasun estrategiko** gisa.



Biztanleen ezaugarritzea

Caracterización de la población

Biztanleriaren bilakaera 2015-2025




1. %6,5 biztanleriaren beherakada orokortua
2. 47,5 urteko batezbesteko adina
3. Biztanleriaren sexuaren araberako banaketa orekatua
4. Zahartze-prozesu sakonean murgildutako egitura
5. Kanpoko jatorriko biztanleriaren pisu murrizta (% 6,6a)
6. Gazteen emantzipazio tasa oso urria (%8a)


Ekonomia eta enplegua

Economía y empleo

Biztanleria jarduerarekiko harremanaren arabera 2025



Biztanleria hilabete bukaerara iristeko gaitasunaren arabera 2025




1. Enplegu betea duen langabeziarik gabeko eremua (% 1,2)
2. Laurdena pasa, iraupen luzeko langabetuak
3. Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (% 62)
4. Industriaren presentzia nabarmena (% 29)
5. Autoenpleguaren garrantzia erlatibo nabarmena (1/4)
6. Udalerria (em.) eta eskualdea (giz.) lan-eremu gisa
7. Kontziliazio neurrien erabilera mugatua (% 11)
8. Hilabete bukaerara iristeko zailtasun ez (%95)
9. Diru-sarrerak ez dira baxuak


Etxebizitza Vivienda

1. Biztanleriaren %85ak gutxienez 5 urte bertan
2. %7ak baino ez du gehiegizko etxebizitza gastuen zama
3. Gehiengo zabala jabetzan
4. Etxebizitzaren egoera orokorra oso ona da
5. 2,66 pertsona etxebizitza bakoitzeko


Biztanleria auzoan bizitzen daraman denboraren arabera 2025



Biztanleria etxebizitzara bideratutako sarrera-zamen arabera 2025



Biztanleria etxebizitzarekiko jabetza erregimenaren arabera 2025



Ingurumena, hiri-espazio eta garraioa

Medio ambiente, espacio urbano y transporte

Biztanleriaren balorazioa, inguruneari, hiri-espazioari eta garraioari dagokienez 2025

1. Ingurune eta berdeguneekiko balorazio ezkorra (% 52a ez dago pozik)
2. Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko ikuspegi ezkorragoa (% 62a atsekabetuta)
3. Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi bereziki ezkorra (% 68aren nahigabea)
4. Ibilgailu pribatua jarduera guztietarako mugikortasun baliabide nagusi gisa




Bizitza eta komunitate-bizikidetzak

Vida y convivencia comunitaria

1. Bizitzako alderdien (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) asebetetze altua
2. Genero arrakala zaintza lanei dagokienean
3. Etxeko lanak dedikazio gehieneko esparru
4. Inplikazio altua auzoko ekimen eta jardueretan, bereziki gizonezkoen artean
5. Erdibideko auzoarekiko atxikimendu maila
6. Eremuko giro-sozialaren balorazio baikorra (% 84arentzat giroa ona edo oso ona)
7. Erdipurdiko gogobetetze maila auzoaren egoera orokorrarekiko

Biztanleria eremuarekiko atxikimendu mailaren arabera 2025



Biztanleria eremuarekiko gogobetetasunaren arabera 2025



Gobernantza eta zerbitzuak

Gobernanza y servicios

Biztanleriaren balorazioa gobernantza elementuei buruz 2025


- 1. Balorazio erabat txarra ekipamenduen eta oinarrizko zerbitzu eta produktu eskuratzeko gaitasunarena
- 2. Adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen diren aukerekiko desadostasuna
- 3. Gobernantzara adierazleen ikuspegi ezkorra
- 4. Udal teknikarien lana ondoen baloratua
- 5. Auzoari emandako arreta orokorra da okerre

	1	2	3	4	Batez bestekoa
	(Batere pozik ez)	(Ez oso gustura)	(Nahiko pozik)	(Erabat pozik)	
Auzoari eskaintako arreta	38,3	40,9	20,8	0,0	1,83
Auzotarrekiko komunikazioa	33,7	45,3	20,7	0,3	1,88
Kexen, iradokizunen eta abisuen erantzuna	36,2	40,6	23,2	0,0	1,87
Izapideak egiteko erraztasuna	23,9	47,0	28,3	0,8	2,06
Langileek emandako tratua	16,0	26,5	56,3	1,2	2,43
Kargu politikoak dituzten pertsonen egindako lana	21,7	52,3	26,0	0,0	2,04

Lehenespen eta premia nagusiak

Priorización y necesidades principales

Beharrak	Arloa	Lehentasun maila
Auzoetara iristeko errepideen egoera eskasa nabarmentzen da: bide estuak, batxeak,	Hirigintza	Oso altua
Landa-eremuko auzo batzuetan etxebizitzak behar direla diote (Urkizu edo Bedaio, kasu) bertako gazteak auzoetan gera daitezen. Bestela dauden etxeak eraberritzeko plan bat garatu	Hirigintza	Oso altua
Udalarekin komunikazioa edo interlokuzioan gabeziak daude, esan edo eskatzen diren gaiei/beharretan ez dute erantzun garbirik topatzen.	Bizikidetza	Altua
Herribideak zaintzeko beharra nabaria da: ankantarilak, asfaltatu gabeko bideak, zuloak...	Mugikortasuna	Altua
Ondarea zaintzeko eta sustatzeko señaile eta zaintza lanak faltan botatzen dira: estatuak, informazio panelak...	Historia eta kultura	Ertaina
Ur sarearen zaintza eta saneamendu falta dago auzo batzuetan (Urkizun, esaterako).	Azpiegiturak	Baxua
Herriguneetan (Bedaion, batez ere) urbanizazio edo hirigintza garapen falta dago.	Hirigintza	Oso baxua
Auzo elkarteak indargune izatea sustatzea eta auzo-arteko ekintzak koordinatzeko espazioak eskaintzea	Bizikidetza	Oso baxua



San Esteban

Ondorio nagusiak

San Estebanen biztanleria handitu egin da, eta **etorri berrien** —gehienak kanpo-jatorrikoak— **pisua adierazgarria** da. Horrek **biztanleriaren gaztetzea** ekarri du, baina aldi berean, **langabezia tasa altuagoa eta diru-sarrera apalak** ere bai, lan-merkatuaren eskakizunen eta bizilagun berrien profilaren arteko desoreka baten ondorioz. Hala ere, ez da zailtasun ekonomiko orokortu baten arrastorik, gastu maila nahiko neurrian egiten baita. Etxebizitzaren eskuragarritasuna eta alokairuaren presentzia altuak direla eta, **gazteen emantzipazio handiagoa** eta biztanle berrien erakargarritasunaren arrazoia azal dezakete.

Auzoaren barne dinamikan, bizilagun berrien presentzia ez dira oraindik auzogintza aktibo eta kohesionatu batean islatu. **Parte hartzea mugatua da eta udalarekiko distantzia emozionala** hautematen da, utzikeria instituzionalaren pertzepzioak elikatua. Hala ere, bizilagunek auzoaren aktibo nagusiak argi dituzte: lasaitasuna, hurbiltasuna eta identitate kolektiboa. **Azpiegitura eta ekipamenduen egoerari** dagokionez, **gabezia** zehatzak aipatu dira —komun publikoak, parkea, argiteria, iturriak edo estalkiak— eta horiek auzoaren “dignitate sinbolikoarekin” lotzen dituzte. Ferialaren egoera ere auzoaren metafora bihurtu da: potentzial handiko espazioa, baina gaur egun erabilpen eta mantenu faltagatik lausotua.

Aniztasun kulturala eta belaunaldien arteko oreka **funtsezko ardatzak** dira San Estebaneko etorkizuneko garapenerako. Integrazioa ez da gatazkatsua, baina ezta erabat gauzatua ere, eta horregatik beharrezko jotzen dira **elkarbizitza indartzeko ekintza kolektiboak**: jaialdiak, oroimen ekintzak, espazio ireki partekatuak... Etorkizuneko estrategiak, beraz, hiri-espazioaren hobekuntza, komunitate kohesioa eta gobernantza partekatuaren sendotzea uztartu beharko ditu, auzoa bizi, seguru eta inklusibo bihurtzeko bidean.




Biztanleen ezaugarritzea

Caracterización de la población

1. %5,8 biztanleriaren gorakada
2. 43 urteko batezbesteko adina
3. Sexuen arteko desoreka txikia (%52 emakumeak)
4. Gaztetuz doan piramidea (%26ak 24 urte edo gutxiago)
5. Biztanleen %30ak kanpoko jatorria du (Ukraina nagusituz)
6. Gazteen 2/3 emantzipatuta bizi da


Biztanleriaren bilakaera 2015-2025




Ekonomia eta enplegua

Economía y empleo

Biztanleria jarduerarekiko harremanaren arabera 2025



Biztanleria hilabete bukaerara iristeko gaitasunaren arabera 2025




1. Langabezia tasa esanguratsua (% 12 baino gehiago)
2. Herena iraupen luzeko langabetuak
3. Zerbitzuen sektorearen nagusitasuna (% 71)
Emakumeetan (% 88), gizonezkoetan (% 50)
4. Udalerria lan-toki nagusi gisa, bereziki emakumeengan
5. Kontziliazio neurrien erabilera hedatua (% 54)
6. Hilabete bukaerara iristeko zailtasun eza (%80)
7. Diru-sarrera garbien apaltasuna
8. 2/5ak prestazio edo/eta dirulaguntzaren bat jasotzen du


Etxebizitza Vivienda

1. Biztanleriaren %40ak 5 urte baino gutxiago bertan
2. Laurdenak zama handiegia etxebizitza gastuetara
3. Biztanleen ia erdia alokairuan bizi da
4. Etxebizitzen egoera orokorra ona (1/5 erreforma beharra)
5. 2,3 pertsona etxebizitza bakoitzeko


Biztanleria auzoan bizitzen daraman denboraren arabera 2025



Biztanleria etxebizitzara bideratutako sarrera-zamen arabera 2025



Biztanleria etxebizitzarekiko jabetza erregimenaren arabera 2025




Ingurumena, hiri-espazio eta garraioa

Medio ambiente, espacio urbano y transporte

Biztanleriaren balorazioa, inguruneari, hiri-espazioari eta garraioari dagokienez 2025

1. Ingurune eta berdeguneekiko balorazio baikor orokortua (% 60a konforme)
2. Hiri-espazio osatzen duten elementuekiko ikuspegi ezkorra (% 56a atsekabetuta)
3. Garraio eta mugikortasunarekiko ikuspegi baikorra (% 60a konforme)
4. Oinezko desplazamenduen garrantzia nabarmena (lanerako eta ikasteko izan ezik)




Bizitza eta komunitate-bizikidetzatza

Vida y convivencia comunitaria

1. Bizitzako alderdiei (osasuna, elikadura, ongizate emozionala) buruzko asebetetzea
2. Genero arrakala zaintzar lanetan
3. Etxeko lanak dedikazio gehieneko esparru
4. Parte-hartze eskasa auzoko ekimen kolektiboetan, bereziki emakumeen artean
5. Auzoarekiko atxikimendu nahiko mugatua (erdia eta erdia)
6. Eremuko giro-sozialaren balorazio baikorra
7. Erdipurdiko gogobetetze maila auzoaren egoera orokorrarekiko

Biztanleria eremuarekiko atxikimendu mailaren arabera 2025



Biztanleria eremuarekiko gogobetetasunaren arabera 2025



Gobernantza eta zerbitzuak

Gobernanza y servicios

- 1. Ekipamenduen balorazio ezkorra eta oinarrizko zerbitzu eta produktu eskuragarritasunaren balorazio ona, ez ordea ekipamenduen
- 2. Adin-talde desberdinetako pertsonentzat eskaintzen diren aukerekiko asebetetzea
- 3. Muturreko adin-taldeetako kideentzako aukerekiko desadostasuna
- 4. Udal teknikarien, izapidetzak egiteko erraztasunaren eta auzoari emandako arretaren balorazio ona
- 5. Bizilagunekiko komunikazioaren, politikarien lanaren eta iradokizunen erantzunen balorazio ezkorra

Biztanleriaren balorazioa gobernantza elementuei buruz 2025

	1 (Batere gustura ez)	2 (Oso gustura ez)	3 (Nahiko gustura)	4 (Guztiz gustura)	Batezbestekoa
Auzoari eskainitako arreta	11,6	36,2	47,6	4,6	2,45
Komunikazioa bizilagunekin	15,6	39,5	41,4	3,5	2,33
Erantzuna kexei, iradokizunei, jakinarazpenei	13,7	47,5	36,0	2,8	2,28
Izapideak egiteko erraztasuna	5,4	30,5	57,3	6,8	2,65
Langileek emandako tratua	3,4	19,3	61,3	16,0	2,90
Politikako karguak dituzten pertsonen egindako lana	12,2	49,3	35,1	3,4	2,30



Lehenespen eta premia nagusiak

Priorización y necesidades principales

Beharrak	Arloa	Lehentasun maila
Komun publiko eta iturriak berritzea eskatzen da, parkea daudenak	Azpiegitura	Altua
Udalarengandik auzoarekiko "utziaren" sentsazioa orokorra da: zaindu gabeko bideak, eraikin utziak, Feriala...	Hirigintza	Altua
Segurtasuna eta iluminazio eskasa nabarmentzen dute, batez ere aparkalekuan (Zirkuaren eremuan)	Bizikidetza	Altua
Eremu berdeak eta parkeak areagotzea eskatzen da: banatuta dagoen parkea batu, esplanada parke bilakatu, haurrentzako jolas egiteko ekipamendu gehiago...	Ingurumena	Ertaina
Elkarbizitza, dinamizazio soziala eta bizilagun-arteko kohesioa landu nahi dute. Auzoa dinamizatzeko tresnak behar dituzte (laguntza) eta kultura ezberdinetako pertsonekin indentitate berria eraiki.	Bizikidetza	Ertaina
Parkearen inguruko espaloi eta karreterak irisgarritasun arazoak ematen ditu: gurpildun aulkiak, hurrek karritoak... helduentzako espazio asko dago baina irisgarritasuna falta dute.	Mugikortasuna	Baxua

Lehenespen eta premia nagusiak

Priorización y necesidades principales

Beharrak	Arloa	Lehentasun maila
Garapen urbanistikoari ekarpenak: eraikin hutsen jabeei mantenua egitera exijitu, etorkizuneko hirigintza garapena ekilibratua egin eta aparkaleku eta antolakuntza arazoak zuzendu.	Hirigintza	Baxua
Garbitasuna eta mantenua indartu beharra dagoela diote, aparkaleku atzeko eremuan, batez ere.	Mantenua	Baxua
Ferialaren eraikina eta gainontzeko lokal publikoen egoera kaskarra adierazten dute. Kristalak puskatuta, zaintza falta...erreabilitazio bat beharko lukete eta auzotarren eskura jarri.	Mantenua	Baxua
Karretera orokorraren peatonalizazioa eta puntu berde bilakatzea proposatzen da. Utzitako eraikinak aprobetxatu...hirigintza garapenarekin batera kontuan hartu beharreko ideiatzat ematen da	Hirigintza	Oso baxua



Eskerrik asko